



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko otsailaren 13a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2004ko kontu orokorreari buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoetan publizitate eta komunikazio instituzionala arautzen dituen. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin. Zuzenketak aurkezteko epea (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak herriaren eguna Xabierren ospatzeari buruz udal guztiei igorritako gutunari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Xabierko auditoria eraikitzeko egindako inbertsioei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Toki Administrazioako kontseilariak alkate guztiekin Xabierren deitutako bilerari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako poliziarri eta segurtasun publikoari buruzko foru lege proiektuak taxutzeko aurreikuspenei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (13. or.).
- Galdera, itxaronzerrendak arintzearen Ubarmin klinikan kirofanoak egokitzeari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (13. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Espezialitate Zentroko Oftalmologia Zerbitzuko itxaronzerrendei buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (14. or.).

- Galdera, garun-perlesia sendatzeko fibrotomiaren teknika aplikatzeari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroan, 2005ean, langile autonomoen alta gutxiago egon izanaren arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egina (15. or.).
- Galdera, larrialdiak abiarazteko Positron sistemari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Comptos Ganberako 2006. urterako plantilla organikoa eta erakunde horren funtzionarioen zerrenda 2005eko abenduaren 31n (17. or.).
- Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko. Izendapena (19. or.).
- Baztango Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (19. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko langileen estatutuaren 17.2 artikulua garatzeko erregelamenduaren aldaketa (26. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2004ko kontu orokorreari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2005eko irailaren 12an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2004ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Comptos Ganberak txosten bat eman zuen, 2006ko urtarrilaren 23ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 154. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako 2004ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko jardunbidez bideratzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako 2004ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 110. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku

uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legearen 115. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2004ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz adierazitako tramiteak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2004ko kontu orokorreari buruzko Foru Legearen proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egin dira Nafarroako 2004ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen 113., 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Haien edukia ondoko agirietan bildu da:

I. LIBURUKIA. Hemen bilduta daude Nafarroako Parlamentuaren kontuak, Comptos Ganberarenak, Arartekoarenak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarenak eta bere erakunde autonomoenak, sozietate publikoenak, eta Nafarroako 2004ko aurrekontu orokorren betetzearen analisia. Liburuki honetan, besteak beste, agiri hauek jaso dira:

– Gastu eta dirusarreraren aurrekontuen likidazio egoera-orriak.

– Egoeraren balantze orokorra.

– Emaidzen kontua.

– Funtzen jatorriaren eta aplikazioaren egoera-orria.

– Diruzaintzako kontu orokorra.

– Zorpetzearen kontu orokorra.

– Ondasun, eskubide eta betebeharren inbentarioa.

– Aurreko ekitaldietatik kobratu beharreko esku-bideen eta ordaindu beharreko betebeharren bilakaera eta egoera erakusten dituen egoera-orria.

– Ekitaldian, erabilera orokorrari lotutako jabari publikoko ondasunetan egindako inbertsioak erakusten dituen egoera-orria.

– Datozen ekitaldien kargura hartutako konpromisoen egoera-orria.

II. eta III. LIBURUKIAK. Nafarroako Parlamentuaren, Comptos Ganberaren, Arartekoaren eta sozietate publikoen kontuen garapena.

IV. LIBURUKIA. Nafarroako aurrekontu orokorren likidazioa eta finantzen egoera-orriak zehazten dituzten xehetasun-agiriak, 2002ko ekitaldiaren itxierakoak.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2006ko martxoaren 14ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2005eko abenduaren 19ko 131.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoetan publizitate eta komunikazio instituzionala arautzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak Nafarroako administrazio publikoetan publizitate eta komunikazio instituzionala arautzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako administrazio publikoetan publizitate eta komunikazio instituzionala arautzen dituen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Foru Lege proposamena,
Nafarroako administrazio publikoetan publizitate eta komunikazio instituzionala arautzen dituen**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 23. artikulua Nafarroako Gobernuari esleitzen dio funtzio exekutiboa, erregelamenduak egitea eta funtzio administratiboa barne direla. Bestalde, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 7. artikulua Nafarroako

roako Gobernuari esleitzen dio Nafarroako Foru Komunitatearen politika orokorra zehaztu eta ezartzea, lehendakariaren jarraibideei jarraituz, bai eta foru erkidegoko administrazioaren, haren erakunde publikoen eta haren menpeko beste entitate batzuen zuzendaritza eta ikuskaritza gorena egitea ere. Funtzio horiek betetzerakoan, herritarrekiko komunikazioa gobernuaren ekintza ororen osagai berezkoa bilakatu da, ezaugarri nagusitzat informazioaren eta hura transmititzeko bide ezberdinen garrantzia duen gure garai honetan; aipatu foru legean gobernuaren eledunaren figura instituzionalizatu izanak horixe ematen du aditzera.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak 10. artikuluan publikotasunaren printzipioa biltzen du jarduteko printzipioen artean eta 14. artikuluan herritarrek informazioa jasotzeko daukaten eskubidea ere biltzen du. Gainera, 15. artikuluan, foru erkidegoko administrazioak nahitaez eman behar duen informazio orokorra arautzen da. Bertan ezarrita dago administrazioak bere antolamenduari buruzko eta zerbitzu eta prestazio publiko nagusiei buruzko informazio gaurkotua eman behar duela etengabe, bai eta administrazio-unitateen identifikazio eta kokapenari buruzko informazioa, bere eskumenekoak diren prozedurei buruzko informazio orokorra eta, berariaz, herritarrek aurkatzeko eta erreklamatzeko dituzten baliabideei buruzko informazioa ere.

Betebehar horiek betetzen dituela, administrazioa, ohikotasunez eta gero eta intentsitate handiagoz, herritarrei zuzendutako mezuen igorle bilakatu da; mezu horiek publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalen izen orokorraren baitan biltzen dira.

Gobernu lanak duen izaera bikoitza, politikoa eta administratiboa, ordea, komunikazio eremu berezietan mantendu behar da. Izaera politikoko balorazioak, iritziak eta informazioak beren bide propioak daukate, eta ez dira komunikazio jarduerarekin nahastu behar; izan ere, komunikazio jar-

duera da administrazioak erabiltzen duena –mezu erkide bat zabaltzeari begira antolaturik eta bideraturik– ematen dituen zerbitzuak eta garatzen dituen jarduerak herritarrei jakinarazteko. Publizitate eta komunikazio instituzionalak herritarren beharrian eta interesen zerbitzuan egon behar dute bete-betean, eta herritarrei bidea erraztu behar diete beren eskubideak erabil ditzaten eta dauzkaten betebeharrak bete ditzaten, eta ez dute funts publikoen erabilera zuzenarekin bat ez datoren helbururik eduki behar.

Xede horrekin, autonomia erkidego batzuek (Andaluzia, Aragoi, Katalunia, Valentzia) azken urteetan publizitate instituzionalari buruzko legeak onetsi dituzte, eta berriki Gorte Nagusiek Publizitatea eta komunikazio instituzionalari buruzko abenduaren 29ko 29/2005 Legea onetsi dute. Izan ere, lege horren aplikazio esparrua Estatuko administrazio orokorra da, baina haren manu bat, 4. artikulua, zeinak debeku batzuk ezartzen baititu komunikazio eta publizitate kanpainetan, oinarrizkoa da eta, horrenbestez, administrazio publiko guztiak lotzen ditu.

Autonomietako eta estatuko aipatu legeen antzeko xedeekin, foru lege honek foru erkidegoaren esparruan arautzen du publizitate eta komunikazio kanpainen bitartez zabalduetako mezuen edukia, bermeak xedatzen ditu ematen dituen aginduak betetzen ez dituzten kanpainen aurka, eta tresna batzuk ere ezartzen ditu foru administrazioaren publizitate eta komunikazio jarduerak planifikatzeko, koordinatzeko eta kontrolatzeko. Foru lege honen xedapenak aplikatzeak berekin ekarriko du gobernuaren lana goraipatzea edo alderdi baten interesak defendatzea xede duten publizitate kanpainak desagertzea erabat, eta bermatuko du kanpainak beren hartzaille legitimoen –alegia, herritarren– zerbitzuan egon daitezen, eta ez haiek sustatzen dituzten zerbitzuan.

Publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalak eraginkortasun, gardentasun, austeritate eta efizientzia printzipioak bete beharko dituzte; horretarako, formula organikoak eta administrazio jarduerari loturikoak sortzen dira, organismo administrazioen eta kontrol sistema egokien arteko koordinazioa bermatuko dutenak.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta esparrua.

1. Foru lege honek Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 1. artikulua aipatzen dituen gaineko subjektuek eta Nafarroako toki administrazioa

osatzen duten entitateek sustaturiko edo kontraturiko publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalen araubide juridikoa ezartzen du.

2. Foru lege hau ez zaie aplikatuko aurreko idatz-zatian aipaturiko subjektuek, berezkoak dituzten helburuak betetzearren, aurrera eramaten dituzten industria, salerosketa edo merkataritza esparruetako kanpainei.

3. Foru lege honen aplikazio esparrutik kanpo geratuko dira legearen aginduz berariaz argitaratu edo zabaldu behar diren arauzko xedapenak, ebazpenak eta egintza administratibo edo judizial guztiak, bai eta jarduera publikoei buruzko gaineko informazioa ere.

2. artikulua. Publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalak zer diren.

Foru lege honen ondorioetarako:

a) Publizitate kanpaina instituzionala da mezu edo xede erkide bat zabaltzera bideratutako eta horretarako antolatutako jarduera oro, hartzaille anitzei zuzendua, publizitate euskarri ordaindua edo lagatakoa erabiltzen duena eta 1. artikuluan aipaturiko subjektuetako batek sustatua edo kontratatua dena.

b) Komunikazio kanpaina instituzionala da hertsiki publizitateari dagozkionetatik bestelako komunikazio moldeak erabiliz 1. artikuluan aipaturiko subjektuetako batek kontratatzen duena, hartzaille anitzetarako erkidea den mezu edo xede bat zabaltzeko.

3. artikulua. Publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalen betekizunak.

1. Soilik sustatu edo kontratatu ahalko dira publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalak ondoko xedeetako bat dutenean:

a) Konstituzioaren baloreak edo Nafarroako autogobernuaren araubidearen printzipioak zabaldu eta ezagutaraz daitezen sustatzea.

b) Herritarrei beren eskubideei eta legezko betebeharrei, erakunde publikoen funtzionamenduko alderdi garrantzitsuei eta eremu eta zerbitzu publikoen sarbideari eta erabilerari buruzko informazioa ematea.

c) Herritarrei hauteskunde prozesuei eta herri kontsultei buruzko informazioa ematea.

d) Xedapen juridikoen edukia zabaltzea, baldin eta haien berritasunarenagatik edo gizartean dauzkaten ondorioengatik jende guztiak ezagutzeko neurri osagarriak behar badira.

e) Enplegu publikoaren eskaintzak zabaltzea, baldin eta haien garrantziarengatik edo interesarengatik zabaldu beharrekoak direla jotzen bada.

f) Ordena edo segurtasun publikoko neurriak hartzeari buruz ohartaraztea, hartzaile anitzengan eragina dutenean.

g) Arriskuei aurrea hartzeko neurriak edo pertsonen edo ingurune naturalaren osasunerako edozein motatako kalteak saihesten lagunduko duten neurriak iragartzea.

h) Nafarroak kanpoan dauzkan sektore ekonomikoei laguntzea, Nafarroako salgaiak merkatuan sustatzea eta kanpoko inbertsioak erakartzea.

i) Nafarroako edo toki entitateen lurralde-esparruko ondare historiko, kultural, linguistiko eta naturala zabaltzea.

j) Garrantzi eta interes sozialeko programa edo jarduketa publikoak jakinaraztea.

2. Publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalak soilik garatuko dira interes publikoko arrazoiak tartean direnean eta eskumenen propioez baliatuz.

3. Kanpaina instituzionalak lagungarri gertatuko dira gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko eta Nafarroako gizartean dagoen aniztasun sozial eta kulturala errespetatuko dute.

4. Kanpaina instituzionaletan ondoko printzipioetatik heldu diren betekizunak beteko dira beti: interes orokorra, leialtasun instituzionala, egiazkotasuna, gardentasuna, eraginkortasuna, erantzukizuna, efizientzia eta gastuaren austeritatea.

4. artikulua. Debekuak.

1. Honako kasuetan ezin izanen dira publizitate edo komunikazio kanpaina instituzionalak sustatu edo kontratatu:

a) Xede dutenean foru lege honetako 1. artikuluan aipaturiko subjektuek kudeaketan lortutako arrakasta edo erdietsitako helburuak azpimarratzea.

b) Beste botere publiko batek, bere eskumenez baliatuz, eginiko politika publikoak edo edozein jarduketa legitimo nabarmen kaltetzen, oztopatzen edo nahasten dituztenean.

c) Mezu baztertzailak, sexistak edo Konstituzioaren printzipio, balore eta eskubideen kontrakoak biltzen dituztenean.

d) Zuzenean nahiz zeharka indarkeria edo antolamendu juridikoaren aurkako jokabideak sustatzen dituztenean.

2. Publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionaletako mezuak edo kanpainak ezin izanen dira nahasgarri gertatu edozein erakunde politiko nahiz sozialen sinbolo, ideia, adierazpide, diseinu edo irudiekin.

3. Ezin izanen dira publizitateko kanpaina instituzionalak zabaldu ez badira halakotzat argi eta garbi identifikatzen, eta administrazioaren edo entitate sustatzaile edo kontratatzailearen berarizko aipamena egin gabe.

5. artikulua. Publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalen irisgarritasuna.

Erakunde eskudunek behar diren neurriak hartuko dituzte edozein ezgaitasun duten pertsonen informazioa modu osoan eskura dezaten bermatzeko.

6. artikulua. Ingurumena errespetatzen duten euskarriak sustatzea.

Lehentasuna emanen zaie, kanpainaren eraginkortasunari inongo kalterik egin gabe, ingurumena hobekien errespetatzen duten euskarriari.

7. artikulua. Bermeak.

1. Antolamendu juridikoan aurreikusitako erreturto bideak ezertan kendu gabe, beren eskubide edo interes legitimoak ukituta duten pertsona fisiko zein juridikoen eskatu ahal izanen dute berehala eten edo zuzen daitezen foru lege honetan bildutako debekuren batean erortzen diren kanpainak.

Hori bera eskatu ahalko dute, eskubide edo interes legitimoa kreditatu beharrik gabe, foru lege honetan jasotako balioak eta printzipioak errespetatzen daitezen zaintzea xede edo helburu gisa duten entitate juridikoen.

2. 3.2 eta 4. artikuluek hausteagatik eskatu ahalko diote interesdunek Komunikazio Institutuzionalerako Batzorde Aholku-emailea kanpaina eteteke edo zuzentzeko. Etetea publizitate jarduera hasten denetik bukatzen denera arte eskatu ahal da. Zuzentzea publizitate jarduera hasten denetik hura amaitu eta zazpi egun iragan arte eskatu ahalko da.

3. Komunikazio Institutuzionalerako Batzorde Aholku-emaileak sei eguneko gehieneko epea izanen du eskatutakoa ebazteko. Batzorde horren ebazpenak, zeina exekutiboa izanen baita, administrazio bidea itxiko du. Ebazpenak kanpaina etetea baietsiko balu, iragarkia egin duen organoak berehala etenen du hura. Ebazpenak kanpaina zuzentzea baiesten badu, iragarkia egin duen organoak ebazpen hori eman eta hurrengo zazpi egunetan zuzendu beharko du hura.

4. Kautelazko neurri gisa, eta interesdunak hala eskatzen badu, batzordeak kanpainaren behin-behineko etetea agindu ahalko du, betiere 3.2 eta 4. artikulua hautsi izatearen aztarnak antzematen baditu. Behin-behineko etetea ebazteko gehieneko epea hiru egunekoa izanen da.

5. Prozedurak dirauen bitartean, Komunikazio Institutuzionalerako Batzorde Aholku-emaileak ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahalko die ukituta dauden entitateei.

8. artikulua. Kontratuak

1. Foru lege honetan araututako kanpainari loturiko kontratuak aplikatzeko den araudiaren arabera adjudikatuko dira, publizitate eta lehiakortasun printzipioak hertsiki errespetatuz eta irizpide objektiboari erreparatuz; esate baterako, hedabideen planean aurreikusi diren kostu ekonomikoa eta eraginkortasuna. Irizpide objektibo horiek berak begiratu beharko dituzte kontratistek azpi-kontratazio kasuetan.

2. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalen klausula orokorren orriak onetsiko ditu.

9. artikulua. Hizkuntzak.

Kanpaina instituzionaletan, gaztelania eta euskara erabiliko dira, zabalpenaren ezaugarrien eta haien lurralde-esparruaren arabera, betiere hizkuntza ofizialen arloan aplikatzekoak diren xedapenei jarraituz. Kanpainaren helburua eta haren hartzaileak direla-eta beharrezkoa denean, beste hizkuntza batzuk ere erabiliko dira.

10. artikulua. Hauteskunde eta erreferendum prozesuak.

Foru lege honetan araturiko kanpaina instituzionalak, hauteskunde edo erreferendum prozesuetan zehar egiten direnean, prozesu horiei buruzko arauak ere lotuko zaizkie. Foru lege honen 1. artikulua aipatzen dituen erakundeek ez dute kanpaina instituzionalik egiten hauteskunde aldi-tan; hauteskunde alditzat joko da deialdia egiten den egunetik bozketa egiten den egunera bitartekoa. Betiere, honako salbuespenak egonen dira:

b) Hauteskundeei buruzko arauetan berariaz aurreikusitakoak.

b) Interes publikoa zaintzeko edo zerbitzu publikoak zuzen gara daitezen ezinbestekotzat jotzen direnak.

II. KAPITULUA

Publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalen plangintza egitea eta haiek gauzatzea

11. artikulua. Komunikazio Institutuzionalerako Batzorde Aholku-emailea.

1. Komunikazio Institutuzionalerako Batzorde Aholku-emailea sortzen da Nafarroako administrazio publikoen publizitate eta komunikazio jardueren plangintza egiteko, haietarako laguntza teknikoa emateko eta haiek ebaluatu eta koordinatzeko.

2. Komunikazio Institutuzionalerako Batzorde Aholku-emailea gobernuko eledunaren bulegoa kokatuta dagoen departamentu berari atxikiko zaio eta, gutxienez ere, honako kideak izanen ditu: foru erkidegoko administrazio departamentu guztietako ordezkariak, Nafarroako toki entitateetakoak eta sektore akademikoetakoak eta foru lege honek arautzen duen jarduerarekin lotura duten profesionalak. Batzordearen osaketa, antolamendua eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

3. Batzordearen baitan, errekurtsioetarako komite bat sortuko da, 7. artikuluan aipatzen diren erreklamazioak ebazteko; komite horren osaketan, independentsia eta objektibotasun handienak bilatuko dira.

4. Honako hauek dira Komunikazio Institutuzionalerako Batzorde Aholku-emailearen eginkizunak:

a) Bermatzea publizitate instituzionalak interes orokorreari objektibotasunez erantzuten diela eta foru lege honen printzipioei egokitzen zaiela, horretarako 7. artikuluan araturiko prozedurak erabiliz.

b) Nafarroako administrazio publikoari aholkua ematea publizitate instituzionala dela-eta egiten dituzten kontsultei erantzunez.

c) Publizitate eta komunikazio instituzionaleko urteko planak eta foru lege hau garatzeko erregelamenduzko arauak onetsi aurretik aginduzkoak diren txostenak ematea.

d) Begiratzea publizitate instituzionaleko kanpainak egiteko ardura ematen zaien enpresek emaitzen jarraipena egiten dutela eta kanpainaren eraginari buruzko azterketa bat aurkezten dutela.

12. artikulua. Publizitate eta komunikazio instituzionaleko urteko plana.

1. Nafarroako administrazio publikoek urtero publizitate eta komunikazio plan bat landu eta onetsiko dute; bertan, garatu nahi dituzten kanpaina instituzional guztiak sartuko dira. Planean, gutxienez ere, honako datuak zehaztuko dira: kanpaina

bakoitzaren helburuari buruz beharrezkoak diren azalpenak, aurreikusten den kostua, egiteko epea, erabiliko diren komunikazio tresnak, hartzaileak eta ukituriko erakunde eta entitateak.

2. Foru erkidegoko administrazioaren publizitate eta komunikazio instituzionaleko urteko plana Nafarroako Gobernuak onetsiko du.

3. 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten toki entitateek ez dute aipatu plana landu eta onesteko betebeharririk.

13. artikulua. Urteko planean aurreikusi gabeko kanpainak.

Salbuespen gisa eta berehalakoan gertaturiko arrazoiengatik publizitate eta komunikazio instituzionaleko urteko planean aurreikusi gabeko publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionalen bat egin behar denean, kanpaina sustatu edo kontrolatzen duen entitateak horren berri emanen dio, erregelamenduz zehaztuko den moduan, Komunikazio Instituzionalerako Batzorde Aholku-emaileari, aldez aurretiko txostena eman dezan; txosten hori loteslea izanen da. Kanpaina horiek, betiere, foru lege honetan ezarritakoari lotu beharko zaizkio.

14. artikulua. Publizitateari eta komunikazioari buruzko urteko txostena.

Nafarroako Gobernuak urtero Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren publizitateari eta komunikazioari buruzko txostena egiten du; bertan, honakoak sartuko dira: foru lege honetan aurreikusitako kanpaina instituzional guztiak, haien kostua, eginiko kontratuen adjudikazio-hartzaileak eta, publizitate kanpainen kasuan, kasuan kasuko baliabideei buruzko planak.

Txosten hori Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio urte bakoitzeko lehen bilkura aldian, eta sek-

tokeko antolamendu profesional guztien eskura jarriko da.

Lehenengo xedapen gehigarria.

Publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionaletarako klausula orokorren orriak prestatzerakoan, aginduzko eran, entzunaldia emanen zaie ukituriko sektoreetako elkarteei.

Bigarren xedapen gehigarria.

Foru erkidegoko administrazioak sorturiko publizitatea kontratatuzko irizpide orokorrak erregelamendu bidez arautuko dira; publizitate hori, normalean, Nafarroan egoitza izan eta informazio orokorreko egunkariak argitaratzen dituzten enpresen bidez egiten da, edo Nafarroako lurraldean emititzeko irrati eta telebista lizentzien titularrekin, betiere hedabide bakoitzak Nafarroan daukan hedapenaren arabera. Salbuespen gisa, eta oraingoan ere zabalpenaren arabera, publizitate-tarteak kontratatu ahalko dira helbidea Nafarroatik kanpo duten komunikabideen enpresa titularrekin.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatzeko behar diren erregelamenduzko arauak emanen ditu sei hilabeteko epean.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2006ko otsailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin, aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2005eko urriaren 3ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena,

gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin, prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2006ko martxoaren 3ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak herriaren eguna Xabierren ospatzeari buruz udal guztiei igorritako gutunari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak herriaren eguna Xabierren ospatzeari buruz udal guztiei igorritako gutunari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aur-

keztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan.

2006ko urtarrilaren 12an, eta Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren bosgarren mendeurrenaren kariatara, Nafarroako Gobernuko lehendakariak gutun bat bidali die Nafarroako udalei herriaren eguna Xabierren ospa dezaten. Hori dela-eta, ondoko galderak aurkeztu ditugu:

- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak udalen gastuetarako dirulaguntzaren bat ematea?

- Zein kontusailen kargura emanen da dirulaguntza hori, halakorik izanez gero?

- Zein irizpide edo baremo aplikatuko du dirulaguntza horiek emateko?

- Gobernuko ordezkariak joanen al dira ekitaldi horietara?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Xabierko auditoria eraikitzeke egindako inbertsioei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Xabierko auditoria eraikitzeke egindako inbertsioei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Kultura kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Inbertsio handia egin da Xabierren auditorio bat egiteko, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrenaren ospakizunen kariatara. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

- Zer inbertsio egin dira Xabierko auditorioa eraikitzeko?
- Zein jarduera programatu dira 2006an zehar auditorio horretan?
- Zein aurrekontu aurreikusi du inbertitzea Nafarroako Gobernuak 2006rako programatu diren

jardueretan? Zehaztu jarduerak eta inbertsioak.

- Zein xede eta jarduera aurreikusi dira hurrengo urteetan egiteko, inbertsio hori justifikatu dezaketenak?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Toki Administrazioko kontseilariak alkate guztiekin Xabierren deitutako bilerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Toki Administrazioko kontseilariak alkate guztiekin Xabierren deitutako bilerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Daukagun informazioaren arabera, Toki Administrazioko kontseilariak Nafarroako alkate guztiei dei egin die Xabierren otsailaren 4an biltzeko. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

- Zer arrazoi daude bilera horretarako?
- Zein ekitaldi aurreikusi dira bisita horretarako?

- Zer aurrekontu dago horretarako?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Nafarroako poliziari eta segurtasun publikoari buruzko foru lege proiektuak taxutzeko aurreikuspenei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Nafarroako poliziari eta segurtasun publikoari buruzko foru lege proiektuak taxutzeko aurreikuspenei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Barne zuzendari nagusiak Nafarroako tokiko polizia guztietako ordezkariak bilera baterako deia egin zien, haien arteko koordinazioa hobetzeko. 2006ko urtarrilaren 30ean, Nafarroako Gobernuak horren berri ematen duen prentsa-oharra eman du argitara. Besteak beste, ohar horretan esaten da "tokiko poliziei informazioa eman zaie barne arlo-

rako Nafarroako Gobernuak aurreikusiak duazkan legegintza proposamen berriei buruz; besteak beste, segurtasun publikoari buruzko arau bat eta Nafarroako poliziari buruzko beste arau bat, bai eta bestelako erregelamendu garapen batzuk?"

Nafarroako Parlamentuak 2004ko urriaren 14an eginiko Osoko Bilkuran, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak, ahoz erantzuteko egin nion galdera bati erantzunez, gobernuak legegintzaldi honetan zehar igortzekoak zituen foru lege proiektuen berri eman zuen, eta aurrerago, idatziz erantzuteko egin nion galdera bati emango 2005eko martxoaren 2ko erantzunean, programa horrek 2005ean zehar izaniko aldaketen berri eman zuen. Bi aukera horietako bakarrean ere ez zen aipatu ez segurtasun publikoari, ez Nafarroako poliziari buruzko inongo foru legerik.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak informazioa eman beharko luke landu eta Nafarroako Parlamentura igortzea aurreikusi dituen foru lege proiektu horiei buruz, bereziki legegintzaldi honetan igorri nahi dituen buruz, bai eta foru lege proiektu horien edukiei buruz ere.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, itxaronzerrendak arintzearen Ubarmin klinikan kirofanoak egokitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, itxaronzerrendak arintzearen Ubarmin klinikan kirofanoak egokitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Kutz kontseilariak, komunikabideen bitartez eta Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeari emango informazioan, jakitera eman zuen Ubarmin Klinikako kirofanoak arratsaldeetan erabiliko zirela traumatologiaren arloko ebakuntzetan daudden itxaronzerrendak arintzeko.

Daukagun informazioaren arabera, urtarrilean 1.980 pertsona zeuden kirurgia txikian ebakuntza baten zain, eta 169 pertsona kirurgia handian. Kirurgia txikiko zerrendak, horretarako erabili behar baitzen kirofanoa, edonola ere oso handiak direnez, honakoei buruzko informazioa eskatzen dugu:

– Noiztik erabiltzen ari dira kirofanoak arratsaldez itxaronzerrendak arintzeko?

– Zein izan da arratsaldetako laguntza honek zerbitzuan izan duen bilakaera?

– Zenbat pertsona daude urtarrilaren amaieran itxaronzerrendan?

– Ona izan al da, departamentuaren ustez, itxaronzerrenden bilakaera azken garai hauetan?

– Zein da departamentuaren balorazioa Ubarmin Klinikako itxaronzerrenden egoerari buruz?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Vianako Printzea Espezialitate Zentroko Oftalmologia Zerbitzuko itxaronzerrendei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Vianako Printzea Espezialitate Zentroko Oftalmologia Zerbitzuko itxaronzerrendei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregela-menduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzuteko.

Urtebete baino gehiagoko atzerapena dago oftalmologia zerbitzuan azterketak egiteko Vianako Printzea espezialitateen zentroan. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Zenbat pertsona daude urtarrilean oftalmologia zerbitzuko itxaronzerrendan?

– Esan bezala urtebete baino gehiagoko itxaronzerrenda baldin badago, ordenadore bidez kontsulta egin ondoren, itxaronzerrenda hori gutxitzeko bitartekoaren bat jarri behar al da?

– Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa bada, noiz aurreikusi du departamentuak bitartekoak jartzea?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, garun-perlesia sendatzeko fibrotomiaren teknika aplikatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, garun-perlesia sendatzeko fibrotomiaren teknika aplikatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Departamentuak idatzizko erantzuteko.

Nafarroako egunkari batean, guztiz harrigarri suertatzen den informazio bat irakurri dut: "Garuneko perlesiak konponbidea dauka"

Aurrerago, xehetasun guztiekin azaltzen da helburu hori nola lortzen den. Garuneko perlesia gure erkidegoan eta Espainiako gainerako lurraldeetan pertsona askorengan eragina duen gaitza da, eta, bestalde, ulertzekoa da senideek eskatzea fibrotomiaren teknika aplikatu dadila modu gradualean Espainian. Senideek eskaria Parlamentu-
ra ekarri nahi dutenez, honakoak jakin nahi ditut:

– Zer iritzi du Osasun Departamentuak, ikuspuntu klinikotik, teknika horri buruz?

– Gomendagarria al da geure buruari planteatzea ebakuntza modu hori aplikatu dadin garuneko perlesiak jotako pertsonak beren onera ekartzeko?

– Ebakuntza-teknika hori aplikatzeko moduan izanen al ginateke Nafarroan, epe ertainean?

– Eskatzen duten pertsonen ebakuntza egitea beste erkidego batzuekin lankidetzan izanen al litzateke?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Nafarroan, 2005ean, langile autonomoen alta gutxiago egon izanaren arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, Nafarroan, 2005ean, langile autonomoen alta gutxiago egon izanaren arrazoiei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma

Saizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan:

a) 2005eko urtarrilaren 1etik 2006ko urtarrilaren 1era bitarte Nafarroa izan da langile autonomo gutxienez alta eman duten autonomia erkidegoetako bat. Zein arrazoi daude horretarako?

b) Zer egin behar du zure departamentuak gainbehera hori geldiarazteko?

Iruñean, 2006ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, larrialdiak abiarazteko Positron sistemari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, larrialdiak abiarazteko Positron sistemari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana

Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzuteko:

Larrialdiak abiarazteko Positron sistemak akatsen bat izan al du 2005eko abenduan edo 2006ko urtarrilean?

Akatsen bat izan badu, ondorioz izan al du? Zein akats izan du? Zenbat iraun du akatsak?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Comptos Ganberako 2006. urterako plantilla organikoa eta erakunde horren funtzionarioen zerrenda 2005eko abenduaren 31n.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, 2006ko otsailaren 1ean hartutako erabaki baten bitartez, 2006rako plantilla organikoa eta 2005eko abenduaren 31n erakundearen zerbitzu-

an zeuden funtzionarioen zerrenda onetsi zuen. Erabaki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Erabaki horren jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Comptos Ganberako plantilla organikoa 2006. urterako

Lanpostua	Zenbatekoa	Maila	Araubide juridikoa	Euskararen titulazioa	Izendapen librea	Esklusi-bitatea	Lan-postua	Mailako osagarria	Berariazko osagarria
Lehendakaritzako aholkularia	1		G		X				
Lehendakaritzako idazkaria	1		G		X				
Idazkari nagusia	1	A	F		X	55	75		24
Auditorea	5	A	F			55	75		4
Legelaria	2	A	F			55	54		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	X		55	36		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	29		
Auditoretzako teknikari-kontu-hartzailea	1	B	F			55	39		20
Auditoretzako teknikaria	15	B	F			55	39		
Auditoretzako teknikaria	2	B	F	X		55	39		
Administratzailea	1	C	F		X	55	45	12	
Administraria	5	C	F				34	12	
Administraria	1	C	F	X			34	12	
Mandataria	2	D	F				26	15	
GUZTIRA	39								

F: funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

**2005eko abenduaren 31n Nafarroako Comptos Ganberaren
zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda**

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis M ^a	A	5	Idazkari nagusia	Aktiboa
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	5	Auditorea	Aktiboa
Fuertes Pérez, José	A	7	Auditorea	Aktiboa
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	5	Auditorea	Aktiboa
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	4	Auditorea	Aktiboa
Sesma Masa, Francisco Javier	A	6	Auditorea	Aktiboa
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	6	Informatikako sis. goi mailako tek.	Aktiboa
Erbiti Zabalza, Fermín	A	3	Kazetari-itzultzailea	Aktiboa
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Balduz Gil, Elvira	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Etayo Salazar, Francisco José	B	5	Auditoretzako teknikaria	Zerbitzu bereziak
Ezquerro Royo, José Luis	B	4	Auditoretzako teknikari- kontu-hartzailea	Aktiboa
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Irigoyen Olaiz, M ^a Lourdes	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, A. Aurora	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Martínez Cía, M ^a Isabel	C	7	Administratzailea	Aktiboa
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	4	Administraria	Aktiboa
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	5	Administraria	Aktiboa
Equiza Maquirrian, M ^a Josefina	C	6	Administraria	Aktiboa
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	5	Administraria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	5	Mandataria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	4	Mandataria	Zerbitzu bereziak

Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzekoa.

Izendapena

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat betetzeko oposizio lehiaketa bukatu da. Deialdia 2005eko uztailaren 22ko 87. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2005eko uztailaren 4ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ezagututa epaimahaiak igorritako izendapen proposamena –2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta– eta, deialdiko 7. oinarriarekin bat, interesdunak behar den epean eta moduan aurkezturiko dokumentazioa, hona

ERABAKIA

1. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoan lan egiteko, ondoko izangaia Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, teknikarien kidegoko teknikari diplomatuen eskalako administrazio kudeaketako teknikari lanetan aritzeko:

Balduz Gil, Jorge

2. Interesdunak hilabeteko epea izanen du, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, bere karguaren jabetza hartzeko.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Baztango Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Baztango Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Baztango Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (20. or.).

II. Helburua (20. or.).

III. Hedadura (21. or.).

IV. Iritzia (21. or.).

IV.1. 2004ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (21. or.).

IV.2. 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena (21. or.).

IV.3. Legezketasuna (21. or.).

IV.4. 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera (22. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen-oharrak (22. or.).

IV.6. Comptos Ganberaren 2003ko txostenean egingako gomendioen jarraipena (22. or.).

IV.7. Laburpena eta ondorio orokorra (22. or.).

V. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (23. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa (23. or.).

V.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (24. or.).

1. eranskina. Udalaren 2004ko finantzen egoerorrei buruzko memoria

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Baztango Udalak 7.707 biztanle ditu eta, dagozkion erakunde autonomoekin batera, 2004ko abenduaren 31n zifra adierazgarri hauek ditu:

Erakundea	Onartutako obligazioak (eurotan)	Onartutako eskubideak (eurotan)	Langileak 04-12-31n
Udala	8.051.968	8.806.898	51
Zaharren egoitza	1.372.503	1.374.356	55
Baztan ikastola	420.359	422.480	13

Udalerri hau historikoki berezia da, Nafarroako toki-administrazioaren araubideari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 9. artikuluan jasozten denez. Honela dio: "Baztango Bailara eta Unibertsitate Ohoretsuko udalerrriak haren antolamendu tradizionala mantenduko du, Udalak, Bailarako Batzorde Nagusiak eta lekuetako batzarrak osatutakoa. Horiek udalerrriaren gobernuan eta administrazioan parte hartuko dute, Bailarako Ordenantza Orokorretan xedatutakoaren arabera. Ordenantza horiek Batzorde Nagusiak soilik onartuak izango dira, indarrean dagoen lege-esparruari eta Nafarroako Foru Zuzenbidearen printzipioei jarraituz".

Udalerrriko lekuak (herriak) hauek dira:

Almandotz	Azpilkueta	Erratzu
Amaiur	Berroeta	Gartzain
Anitz	Ziga	Irurita
Arizkun	Elizondo	Ornoz-Mugaire
Arraiotz	Elbete	Lekarotz

Datu horiek aditzera ematen dutenez, berezitasun historikoaz gain, Udal honen ezaugarri gisa haren sakabanatzea aipatu behar da. Izan ere, aipatutako hamabost lekuak ez ezik, barreiatutako hainbat auzo eta baserri ere baditu.

II. HELBURUA

Nafarroako toki-administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki-ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Baztango Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2004ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber,

ekitaldi horretako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki-entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipatutako lege horiek, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta administrazio-kontratazioa nahiz hirigintza-kudeaketa eraentzen dituzten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki-erakundeei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko arauak ere.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru-dekretuak dira, guztiak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Baztango Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Baztango Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen-oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) 2003ko ekitaldiari dagokion azken fiskalizazio-txostenean Ganbera honek emandako gomendioak noraino bete diren.

III. HEDADURA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Baztango Udalaren (aurrerantzean Udala deituko diogu) eta haren erakunde autonomoen, Baztan ikastolaren eta Francisco Joaquín de Iriarte zaharren egoitzaren finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza eta diruzaintzako gerakina eta 2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, bai eta 2004ko ekitaldiko finantzen egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen-oharrak ere.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek badute kontabilitate orokorra ere, udalean ezarritako ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Udalak ez du finantzen egoera-orri bateraturik; beraz, gure fiskalizazioa erakunde autonomo bakoitzaren finantzen egoera-orri indibidualei buruzkoa izan da soilik. 2005eko apirilaren 15ean, Udaltzako 2004ko ekitaldiari dagokion aurrekontu bateratuaren likidazioko egoera-orria onartu zuen. Txosten honen I. eranskinean, 2004ko ekitaldiari dagokion Udalaren finantzen egoera-orrien memoria dago jasota.

Eginiko lanak haxe izan du arretagai: aurrekontuaren betetzeari buruzko kapitulu ekonomikoak berrikustea, horien aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertuta, eta ondare-masak ere berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari buruzko alderdiak aztertuta.

Azterlan hau egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak onetsitako fiskalizazio-printzipioei eta arauari jarraituz, eta baldintzen arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenak udalaren antolamendua, barne-kontrola eta eraginkortasuna hobetzeko beharrezko jo ditugun iruzkinak eta gomendioak ere bildu ditu.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Baztango Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak aztertu ditugu,

2004ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldikoak. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Aurreko III. atalean adierazi bezala, Udalak ez du finantzen egoera-orrien memoria bateraturik; beraz, gure iritzia erakunde autonomo bakoitzaren kontabilitateko egoera-orri indibidualei buruzkoa da.

Egindako berrikuspenaren ondorioz, iritzi hau atera dugu:

IV.1. 2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIO-ARI DAGOKIONEZ

IV.1.1. Udala

Erantsi dugun Udalaren 2004ko aurrekontu-likidazioaren egoera-orriak eta horiei buruzko oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jardura eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.1.2. Erakunde autonomoak

Erantsi ditugun erakunde autonomoen 2004ko aurrekontu-likidazioaren egoera-orriek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jardura eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

IV.2.1. Udala

Erantsi dugun Udalaren 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak eta horiei buruzko oharrek behar bezala agertzen dute haren finantza-eta ondare-egoera, salbu eta 1989koa den ondaren (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, eguneratzeko dagoelako.

IV.2.2. Erakunde autonomoak

Inbentarioari dagokionez, erakunde autonomoen ondareko egoera-orrietan, Udalaren kasuan adierazitako salbuespen bera aipatu behar da.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

IV.3.1. Udala

Oro har, Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezkontasun-printzipioari jarraituz burutu da.

IV.3.2. Erakunde autonomoak

Oro har, erakunde autonomoen jardura ekonomiko-finantzarioa legezkontasun-printzipioari jarraituz burutu da.

IV.4. 2004ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

IV.4.1. Udala

Hasierako eta behin betiko aurrekontua, hurrenez hurren, 13.464.390 eta 15.947.743 eurokoa da. Betetze-maila gastuetan ehuneko 50ekoa da eta diru-sarreretan ehuneko 55ekoa.

2004ko ekitaldian murriztu egin da bai gastuen betetze-ehuneko bai eta diru-sarrerena ere. Udalaren baliabideen ehuneko 70 diru-laguntzetatik datoz.

Ekitaldiaren itxieran, 270.715 euroko superabiteko aurrekontu-emaizta lortu da.

2004ko abenduaren 31n zor finantzarioa 4.365.796 eurokoa da. Saldo horretan, Nafarroako Gobernuak larretarako emandako zenbait aurrerakin sartzen dira, interesik sortzen ez dutenak eta ekitaldi-itxieran 184.5542 euroko saldoa dutenak. Horren amortizazioa, zati batean, partikular onuradunengan jasanarazi da. Aurrezki garbia ehuneko 13koa da eta gastuetarako 1.020.477 euroko diruzaintzako gerakina dago.

IV.4.2. Erakunde autonomoak

A) "FRANCISCO JOAQUÍN DE IRIARTE" ZAHAR ETA ERRETIRATUEN EGOITZA

Francisco Joaquín de Iriarte egoitza ongintzako udal-fundazio publikoa da eta zaharrak eta erretiratuak hartu eta zaintzea du helburu, bailarakoak direnek eta bertan bizi direnek lehentasuna izanik.

2003ko ekitaldian behin betiko funtzionamendu-lizentzia lortzeko espedientea bideratu zen Gizarte Ongizate Departamentuko Ikuskatzailatza Atalean. Ziur aski, eraikinean eta instalazioetan erreforma garrantzitsuak egiteko beharra ekarriko du horrek, egungo lege-eskakizunetara egokitzeko.

Hasierako eta behin betiko aurrekontua 1.469.600 eurokoa da. Betetze-mailari dagokionez, gastuetan ehuneko 93koa da eta ehuneko 94 diru-sarreretan.

Egoitzaren diru-iturri nagusia tasak eta bestelako diru-sarrerak dira (ekitaldian onartutako eskubi-deen ehuneko 90). Gastu adierazgarrienak langile-enak eta ondasun arruntak eta zerbitzuak erostekoak dira.

Ekitaldiaren itxieran 1.853 euroko superabita lortu da, eta aurrekontu-emaizta doituak zenbateko bera du. Egun, egoitzak ez du zorrik, eta 52.698 euroko diruzaintzako gerakin positiboa eta 339.071 euroko balioko finantza-aktiboak ditu.

B) BAZTAN IKASTOLA

Baztan ikastola udal-ikastetxe publikoa da, bailarako Udalaren titulartasuneko.

Hasierako eta behin betiko aurrekontua, hurrenez hurren, 477.340 eta 495.340 eurokoa du, eta bai gastuetan bai diru-sarreretan ehuneko 85eko betetze-maila.

Ekitaldiaren itxieran 20.121 euroko aurrekontu-emaizta lortu da. Diruzaintzako gerakina 47.577 eurokoa da 2004ko abenduaren 31n.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN-OHARRAK

IV.5.1. Udala

Udalaren finantzen egoera-orri buruzko informazio osagarriak eta azalpen-oharrek horiek behar bezala interpretatzeko eta ulertzeko informazioa biltzen dute; hala ere:

- Ez dituzte jasotzen Udalari eta haren erakunde autonomoei buruzko datu bateratuak.
- Ez dute erantsita Udalaren kontratazioari, langile-plantillari eta organigramari buruzko informaziorik, ez eta hirigintzari dagokiona.

IV.5.2. Erakunde autonomoak

Ez dugu lortu erakunde autonomoen finantzen egoera-orri buruzko memoria osatua. Txosten honen II. eta III. eranskinetan, 2004ko ekitaldiari dagozkion aurrekontu-likidazioko egoera-orriak agertzen dira.

IV.6. COMPTOS GANBERAREN 2003ko TXOSTENEAN EGINDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Aurreko ekitaldiari buruzko txostenean egindako gomendioak betetzeari dagokionez, honako hobekuntza hauek nabarmendu ditugu:

- Kudeaketa erabakitzen duten organoen eta udal-teknikarien arteko informazio eta lankidetzaren handiagoa.
- Gastua onartu aurretik, behar adinako aurrekontu-kreditua badagoela egiaztatzea.
- Aurreko ekitaldietako aurrekontuetan sartuta dauden obretarako urteko aurrekontuan kredituak gaineratzea.

IV.7. LABURPENA ETA ONDORIO OROKORRA

Laburbilduz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Baztango Udalak modu egokian kudea-

tzen duela aurrekontua ikuspegi administratibotik. Hala ere, hobetu beharreko gaien artean honakoa aipa litezke:

- *Aurrekontua eta haren likidazioa aurreikusitako epeetan onartzea, kudeaketarako tresna gisa erabili ahal izateko.*

- *Udalaren etorkizuneko finantza-egoera aztertzea, besteak beste, alderdi hauek sakonduz: egin beharreko zerbitzuak eta horien kostua, egin beharreko proiektu berriak, zorpetzeko ahalmena, zerga-presioa eta gastu horiei aurre egiteko baliabideak.*

- *Erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontu likidazioa eta finantza egoeren orria finkaturiko epearen barruan aurkeztera behartzea.*

- *Administrazio-kontratazioa arautzen duen legediaren eskakizun formalak betetzea.*

- *Erakunde autonomoei urteko aurrekontuaren eta finantzen egoera-orrien likidazioa epearen barruan egin dezatela eskatzea.*

Gainera, ez da ahaztu behar erakunde horien eragiketak, erakunde publiko direnez, kontu-hartze publikoaren mende daudela. Beraz, udalak udal kontu-hartzaitza erakunde autonomoetan ere ziurtatzeko behar bezalako neurriak hartu behar ditu.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal hau bi zatitan banatuta dago: batetik, hornidurak erosteari eta zerbitzu-emateari buruzko alderdiak eta, bestetik, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erostea eta zerbitzugintza

2004ko ekitaldian zenbait kontratazio-espeditante egin dira, baina ez dugu esleitutako espedienteen zerrendarik. Horregatik, aztertu beharreko espedienteak aukeratzeko, Gobernu Batzordearen aktetan oinarritu gara. Honako espediente hau aztertu dugu:

Espedientea	Esleipen-prozedura	Esleipen-zenbatekoa (eurotan)
Bide-garbiketa, eta hondakin solidoen bilketa eta garraioa Baztango udalerrian	Lehiaketa irekia	140.700

Comptos Ganberaren gomendioei jarraituz, kudeaketarako prozedura normalizatua aplikatzen da. Nolanahi ere, espedienteaz aztertu ondoren, honakoa ondorioztatu dugu:

- Espedienteaz ez dago jasota kreditua egotearen egiaztagiririk. Era berean, ez dago jasota behin betiko esleipena argitaratu denik.

- Udalak ez du ekitaldian egindako kontratazio-espeditenteen eta indarrean dauden kontratuen erregistro eguneraturik. Horren ondorioz, zenbait kasutan, zerbitzugintzako kontratuen isilbidezko luzapenek gaituzte egiten dute ezarritako gehiengo epea.

- Baztan ikastolari dagokionez, onartutako gastuek aurrekontua gaituzte dutela eta nahitaezko aurrekontu-aldaketarik ez dela egin antzeman dugu.

Hau gomendatzen dugu:

- *Bai Udalarai bai haren erakunde autonomoiei aplikatutako erosketen prozedura idatziz dokumentatzea, aholkularitza juridikoak eta Udaleko kontu-hartzailetzak araudiaren arabera bete beharreko eginkizuna zehaztuz.*

- *Kontratazioari buruzko araudia zorrotz betezea, bai espedienteak bete eta mantentzeari buruzko alderdi formaletan, bai eta esleipen-prozesuari buruzko alderdietan ere.*

- *Espeditenteen eta kontratuen kontrol eguneratua eramatea.*

V.1.2. Inbertsioak

Honako kontratazio-espeditenteok berrikusi ditugu, horien urte anitzeko aurrekontu-egozpena kontuan hartu gabe:

Espedientea	Esleipen-prozedura	Esleipen-zenbatekoa	Gastuaren zenbatekoa
Elizondoko zeharbidea	Lehiaketa	1.470.679	364.478
Iñarbil bidea berritu eta hobetzea	Lehiaketa	390.666	389.688
Landa-bideak hobetzea	Negoziatua, prentsako publizitaterik gabe	750.000	750.000
Igerileku estalia	Negoziatua, prentsako publizitaterik gabe	-	532.785

Igerileku estaliaren obrak aurreko ekitaldietan esleitu ziren. Gainerako obrak ekitaldiaren barruan esleitu dira. Elizondoko zeharbideko obrak eta igerilekukoak oraindik egiten ari ziren ekitaldiaren itxieran.

Ekitaldian esleitutako hiru espedienteetan, kontratazioari buruzko araudiaren oinarrizko printzipioak bete dira. Hala ere, hirurek zenbait tramitazio akats dituzte. Hala, ez daude jasota txosten juridikoak, ez dago jasotako proposamenen erregistroa, kontraturen bat egiteko epea ez da bete (administrazio-klausula berezien pleguan ezarritakoa) eta behin betiko fidantza ez da epean jarri. Kasuren batean, ez dago jasota esleipena NAO-n argitaratu denik.

Gainera, zenbateko txikiagoak dituzten zenbait inbertsiotarako ez da espedienterik egin, batez ere presagatik.

Espeditenteen administrazio-bideratzearekin zerikusia duten akats formalak saihestea gomen-

datzen dugu, espediente horiek beharrezko dokumentu guztiak bildu behar baitituzte.

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz Udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz prestatzea, eta horien burutze-fase bakoitzaren arduradunak identifikatzea eta esleitzea.*

- *Erakunde autonomoen kontrola, esku-hartzea eta tutoretza bermatzeko prozedurak prestatzea.*

- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuetarako memoria prestatzea.*

- *Memoria osatzea, administrazio-kontratazioari, udal-langileei eta hirigintzari buruzko informazioa barne hartuta.*

V.2.2. Inbentarioa/lbilgetua

- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondasunak (publikoak, ondarekoak zein komunalak) eskrituratu eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *Udalaren inbentarioa etengabe eguneratuta edukitzeko eta kontabilitatearekin lotura egokia izateko behar diren prozedurak prestatu eta aplikatzea.*

- *Ibilgetuko altak eta bajak kontabilizatzeko eta dokumentazioa artxibatzeke prozedurak zehaztu eta ezartzea, horretan aplikatzekeak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta bahetzea, Udalaren ondasunak behar bezala ager ditzaten.*

V.2.3. Langileak

- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen organigrama egitea.*

- *Langile bakoitzaren espedienteetan, soldata-kontzeptu bakoitzaren ziurtagiriak barne hartzea.*

- *Baztan ikastolari dagokionez, bertako langile guztien lan-kontratuak idatziz egitea.*

V.2.4. Tributu bidezko diru-sarrerak eta prezio publikoak

- *Udal zergei dagozkien errolden aldaketak onartzea.*

- *Tasa eta prezio publikoek jasandako kostuei buruzko azterlanak aldizka eguneratzea eta onartutako tasak aplikatzea.*

V.2.5. Ondare-sarrerak

- *Aipatutako sarrerek sorrarazten dituzten kontratu guztiak idatziz egitea.*

V.2.6. Diruzaintza

- *Erakunde autonomoetan diru kutxaren kontrol egokia eta erabilera murriztua ziurtatzeko arau batzuk prestatzea.*

- *Egindako kutxako kontaktak dokumentatzea, bai Udalean bai Baztan ikastolan.*

- *Bai Udalean bai haren erakunde autonomoetan aldizkako banku-berdinkatzeak egitea, horiek dokumentu bidez jasota, eragiketa guztiak erregistratu direla ziurtatzeko.*

- *Bankuetan baimendutako sinadurak berrikustea, erabilera-mota banakakorik ez dagoela ziurtatzeko, eta, hala badagokio, sinadura erkidetu-etara aldatzea.*

V.2.7. Alderdi orokorrak

- *Aurrekontuak legezko epeetan egin eta onestea.*

- *Baztan ikastolaren kontabilitatea eguneratuta edukitzea.*

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia-ri dagokionez, arreta handiagoa jarri beharko litza-teke espedienteak formalizatzearen inguruko alderdietan.*

- *Erakunde autonomoetako aurrekontua eta finantzen egoera-orriak epe barruan likidatzea eskatu behar zaie.*

- *Gainera, ez da ahaztu behar erakunde horien eragiketak, erakunde publiko direnez, kontu-hartze publikoaren mende daudela. Beraz, kontu-hartzai-letza benetan egiten dela ziurtatzeko prozedura egokiak martxan jarri behar dira.*

Francisco Javier Sesma Masa auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko araudiak aurreikusita-ko izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko langileen estatutuaren 17.2 artikulua garatzeko erregelamenduaren aldaketa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko eta Langileen Batzarreko ordezkariak 2004tik 2007ra bitarteko akordioa sinatu zuten. Haren 5. artikuluko c) letran hauxe esaten da: "Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzen duen Erregelamendua aldatuko da, artikulua horren edukariari estu lotu dakion, eta, horrela, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren, Mahaiak kasuan-kasuan erabakiko du zerbitzu berezietako egoera egokia den ala ez; barne prestakuntzaren kasuan, betiere, hauta probak egin beharko dira. Aldaketa horrek ez dio eraginaren egun C mailako lanpostuetan prestakuntzan aritzeko aukerari". Aurreko guztia eta legelari nagusiak eginiko txostena ikusirik eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko lehen xedapen gehigarriaren arabera Langileen Batzarrari eman beharreko entzunaldia eman ondoren, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduaren aldaketa onestea. Testua erabaki honekin batera doa.

2. Erabaki hau eta onetsitako aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Parlamentuko langileen estatutuaren 17.2 artikulua garatzeko erregelamenduaren aldaketa

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko erregelamenduari 1. bis artikulua gehitu eta haren 1., 2. eta 6. artikulua aldatu dira. Hona testuak:

"1 artikulua. Nafarroako Parlamentuak zerbitzu berezietako egoeran deklaratu ahalko ditu haren menpeko funtzionario publikoak prestakuntzarako, hobekuntzarako edo ikerketarako jardueretan ari direnean, erregelamendu honetan jasotako kasuetan eta bertan ezarritako baldintzen eta araubidearen arabera"

"1. bis artikulua. Lanpostuaren eginkizunekin loturiko prestakuntza, hobekuntza edo ikerketa jardueren kasuan, jarduera horiek legebiltzarreko administratziotik kanpo egitekoak direnean, Mahaiak erabakiko du interesdunari zerbitzu berezietako egoera aitortzen zaion, legelari nagusiak proposamena aurkeztuta, betiere funtzionarioa atxikita dagoen zerbitzuko buruak adostasuna adierazita eta Langileen Batzarrak txostena eman ondoren. Egoera horren aitortzea egiteko erabakian, zerbitzu berezietako baldintzak ezarriko dira; edonola ere, ez du urtebete baino gehiago iraunen."

"2.1. artikulua. Aurreikusitakoaren arabera bi hilabetez edo denbora gehiagoz luzatuko diren aldi baterako kontratazioak egin aurretik, Nafarroako Parlamentuak bertako funtzionarioei, baldin eta ezartzen diren titulazioa eta baldintzak betetzen badituzte, eskaini ahalko die lanpostu horietan lan egitea, presta daitezzen, eta funtzionario horiek zerbitzu berezietako egoeran deklaratu dira, betiere erregelamendu honetan ezarritako prozeduraren eta aurreikusitako kasuen arabera.

2. C mailako lanpostuak prestakuntzarako eskainiko dira beti, eta maila horri loturiko titulazioaren baldintzaren ordeztu, baldintza izan ahalko da interesdunek Nafarroako Parlamentuan edo Nafarroako administrazio publikoetan benetako zerbitzuetan zortzi urtez aritu izanari buruzko ziurtagiria aurkeztea.

3. Gainerako mailetako lanpostuak prestakuntzarako eskainiko diren ala ez diren eskainiko Parlamentuko Mahaiak erabakiko du, kasuko zer-

bitzuburuak proposatuta eta Langileen Batzarrak aldez aurretik txostena emanda.

4. Aurreko idatz-zatietan aurreikusitakoaren ondorioetarako, hautaprobetarako deialdiak eginen dira, prestakuntzarako izangaien zerrendak egiteko. Lortutako puntuazioaren arabera lehentasun-hurrenkeran ordenatuko dira proba horiek gainditzen dituzten izangaiak. Deialdi horietan, Nafarroako Parlamentuan benetan emandako zerbitzuak ere merezimendu gisa baloratuko dira.”

“6 artikulua. Legelari nagusiari dagozkio erregelamendu honetako 2. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen den zerbitzu berezietako egoera deklaratzeko eskumena, bai eta prestakuntzarako eskaintza egitekoa, lehentasun-hurrenkera finkatzekoa eta hautaprobetarako deialdiak egitekoa ere.”

Azken xedapena. Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	